




Santa Eskean ariko dira, kalez kale

lazko etenaldia eta gero, ohitura zaharra biziberritzeari ekingo dio Manuel Larramendi Kultur Bazkunak / 16

"Haurrek helduok adina ardura erakutsi dute"

Fede Cavalle Urnietako Eskola-Kirola ekimeneko arduradunari elkarrizketa. Buruhaustez beteriko aroa bizi dute gazteek eta kirol hezitzaileek / 9



Andrea Gorman gazteak denda berria zabaldu du Andoaingo Kale Nagusian / 5



Abiatu berri da pandemia garaiko hirugarren Txotx-denboraldia, eskualdean / 2-3



Andoaingo argazkizaleen erakusketa zabalik dago Basteron / 13

egunean behin

- Denboraldi honetako saria: Mizpiradi sagardotegiko sagardo-kaxa.
- "Aiurri" taldea 9. denboraldirako prest.



Muztioa eta sagardoa, Itxas-Buruko bi ekoizpen. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Bi aste atzera zabaldu zituen atek Itxas-Buru sagardotegiak, eta jendeak ondo erantzun omen du momentuz, “batez ere aste-buruan”. Han aritzen da artalde-gobernatzen Jon Pagola, 31 urteko hernaniarra, urte luzetan Urnietako Goiburua auzoko Besabi jatetxean aritutako langilea. Pandemiak sumatzen ziren hainbat aldaketa bizkortu omen ditu, eta horiei nola moldatu pentsatzen pasatzen du denbora dezente Pagolak: “Egiten ez baduzu, negozioak ez du irauten”, dio, zintzo. Astelehen goizekoa da elkarrizketa, sagardo botilak garbitu eta garraiatzeari utzi dio Jonek, Aiurri astekariaren galderak erantzuteko.

Badira bi aste sagardotegi denboraldia hasi zenutenetik, zer moduz joan dira lehen egunak?

Urtarrilaren 15ean ireki genuen, bertso-bazkari batekin, aurreko asteburua ere pasa da, eta, ondo, gustura. Asteburuan, jendea ibili da, eta aste egunetan, ez hainbeste, baina, tira.

Zein da zuen egutegia?

Asteazken gauean irekitzen dugu, eta igande eguerdira arte.

“Egokitu edo akabo, ez dago beste erremediorik”

JON PAGOLA ITXAS-BURU SAGARDOTEGIKO LANGILEA

Txotxaren faltan, berrikuntza ugari eskaintzen dituzte Hernaniko sagardotegian: menu aberatsagoa, sagardo bereziak, eta maiatzetik Sanjuanak bitarte, terraza ederra

Zein joera du bezeroak? Noiz joaten da gehien sagardotegira?

Larunbat eguerditan gaina jo dugu. Igande eguerdian ere lana txukun egiten dugu, eta beste egunak lasaixeago.

Joera ziurrik sumatu al duzue, aurreten eta aurreko urteetan?

Bai, agerikoa da bezeroak gero eta joera handiagoa duela eguerdian etortzeko, eta gauetan gutxiago.

Zergatik?

Gazte jendeak beste ohitura batzuk dituelako. Aste egunetako sagardo zale jendea adin jakin batekoa zen: 50 urtetik gora, familia hezita eta sosak zituena,

baina horiek ere zahartu dira. Gazte jendea larunbat eguerdiko parrandarekin dago buruan, eta horiek ez dira sagardotegira aste egunetan etortzen, lehen tarteka egiten zuten bezala. Ez da joera berria, sumatzen zen hori bazetorrela, eta horrek aldaketa batzuk ekarri ditu gure mundu txiki honetara: denboraldia luzatzea, batez ere, asteak motzagoak direlako negozioaren ikuspuntutik. Lehen hiruzpalau hilekoa zen denboraldia, San Sebastianetan hasi, urtarrilaren 20aren bueltan, eta Aste Santura arte. Orain bospasei hilekoa bilakatu da denboraldia.

Ez da eman den aldaketa bakarra izan.

Ez. Sagardo-botilari balioa emateko bidean, maiatza eta ekaineko kontsumoa bultzatzea erabaki dugu geuk, hor ja eguraldia bera dezente epeltzen delako. Sagardoa, udan, oso edari gozoa da, eta jendea gustura bertaratzen da sagardotegietara. Menua bera ere ezberdina da, bakailaoa eta txuleta gain, beste aukera batzuk daude. Gauza berriak probatu beharrean ikusi gara, eta horretan gaude. **Sagardotegi soilak sagardotegijaketxe bilakatzeko bidean al daude?**

Gure kasuan, bai. Sagardotegiek sagardotegi izaten jarraituko dute, dugu, baina sagardoa edateko moduan aldaketa dator. Txotx-ean bakarrik kontsumitu ordez, botilan ere edan daitekeela ikusten ari gara, eta sagardoa beste janariekin ondo ezkontzen dela: antxoekin, pikillo piperrekin, saiheskiarekin... Sagardo bereziak ere indarra hartzen ari dira: xanpain zaporekoak, ezkontza bakarreko sagardoak, bikoak... Bezeroa horiek dastatzeko jarrera irekia erakusten ari da.

Alegia, egokitu edo akabo.

Bai, eta pandemiak ekarri duena egokitze, moldatze behar hori azkartzea izan da. Pandemiak txotx-a moztu du, hau hirugarren urtea da dagoeneko, eta azken kolpea izan da gauza berriak, pizgarri berriak bilatzeko. Aldaketa sakonak eman dira hamarkada batean, baina pandemiak epe hori murriztu du nabarmen. **Txotx-ak iraungo al du?**

Bai, noski. Ondo funtzionatuko du, normaltasunera itzultzen garenean, baina botilako kontsumoak ere behar zuen bultzatuko bat.



150.000 litro sagardo ekoiztu dituzte aurten. AIURRI

“Puristek” diote txotx-a gabe sagardotegiek jai dutela. Zer diozue zuk?

Beno... Denetik egin behar da. Txotx-a nahi duenak, txotx-a, eta sagardoa botilan eta mahaietan dastatu nahi duenari ere eman egin behar zaio. Nahi duenak upeletik edan dezala, eta nahi duenak botilatik.

Ze esaten du bezeroak?

Gehienek txotx-a eskatzen dute, baina familiak-eta, ondo jan nahi duen jendea mahaietan gustura egoten da, jaiki gabe sagardoa dastatuz. Gazteak, noski, saltsa nahiago du, upel artean sortzen den giro berezi horretan murgildu. Bezero portzentaia handienak txotx-a nahi du.

Maiatza eta ekainean irekiko duzuela esan duzu. Hain zuzen ere, terraza prestatu duzue garai horri begira, ezta?

Bai. Maiatza eta ekainean irekiko dugu, eguraldia samurtzen denean, ze orain ezin da. Bi hilabete horietan ja goxatu egiten da temperatura, eta bero puntu batekin sagardoa oso gustura edaten den edari freskoa da. Beste berrikuntza bat, sagardoa kontsumitzeko beste modu bat. Ilunabarretan saiheski pika batekin, sagardo botila eskaintza aberatsarekin, hiruzpau sagardo lote ezberdin, sagasti ezberdinetako sagardoa...

Terrazarekin sagardotegi gutxi daude, momentuz.

Bai, geu, Altxueta, Iparragirre... Nire ustez, handitu egingo da terraza jarriko dutenen sagardotegi-kopurua, negozioarentza-

ko ezinbesteko bultzada izango delako.

Sagardo-botilako etiketari begiratzan sumatu nituen bezero asko zuen sagardotegian, zein sagastikoa zen begiratzan-eta. Ba al du interesik jendeak, xehetasun horiekin?

Bai, jakina. Bezero berria denak erreparatzen dio, batez ere, baina sagardotegi zale petoak ere bai: non dagoen sagastia, zonaldea ezagutzen ote duen... Egun sagardo berezietan bakarrik erakusten da informazio hori, baina, urte batzuk barru, sagardo normalak ere erakutsiko du informazio hori, euskal sagardoa garatzen doan heinean.

Merkatari onaren fama duzu, Jon.

Ba ote? Dakitena da merkatuak, jendarteak eskatzen duenera egokitu egin behar zarela, egiten ez baduzu ez dagoelako erremediorik. Aurrera egin behar da, ez atzera. Gure gaur egungo bizimoduan gauzak urte batetik bestera aldatzen dira, urte batean zaharkitu egiten dira gauzak. Bezeroari tortilla, bakailaoa eta txuleta bakarrik eskaintzen badizkiozu, jai duzu. Hori ziur dakit.

Zein da, zure ustez, Itxas-Buru sagardotegiko marka, berezitasuna?

"PANDEMIAK EGOKITZEKO ETA MOLDATZEKO BEHAR HORI AZKARTU EGIN DU"

Ez da gauza bakarra. Izan behar du otordu ona, sagardo ona, eta sagardo ezberdinak dastatzeko aukera izatea. Gauza bereziak eskaini. Txuletarekin sagardo berezi bat, antxoekin beste bat. Edo postrearekin beste bat. Berzitasun hori, ukitu hori eman nahiko nioke gure eskaintzari.

Zenbat sagardo litro ekoiztiko dituzue aurten?

150.000 bat litro edo.

Zenbat sagasti dituzue?

Eduki, jabetzan, bederatzi bat hektarea. Uzta ematen dutenak, bost, momentuz. Bederatzi hektarea uzta ematen edukitzea ez da erraza, sagastiak etengabe berriro egin behar direlako.

Batzuk ematen dutenean besteak berriro egin behar dira, eta sagastiek bere epeak dituzte.

Sagardo Eguneko aurkezpenean Unai Agirre Euskal Sagardoa Jatorrizko Izendapeneko arduradunak argi esan zuen sagardotegietako salneurriak igo egingo zirela apur bat, kostuak asko handitu direlako.

Hala da. Argindarra, erregaia, lehengaiak, gizarte-segurantzaz... Igoera izango da, baina neurrian. Nire ustez produktu ona emanez gero, ez zaio halako garrantzirik emango igoera txiki horri.

"NORMALTASUNERA IRISTEAN, TXOTX-AK IRAUNGO DU. BAINA BOTILAK ERE BEHAR ZUEN BULTZADATXOA"



Eugenio Urruzola, artxiboko irudian. AIURRI

Setien, otsailaren 5ean zabalik

Otsailaren 5ean irekiko ditu ateak Eugenio Urruzolak, Setien sagardotegiko nagusiak. Urruzola: “Baditugu erreserba batzuk dagoeneko. Urtarrilaren 28an irekitzeko asmoa genuen, baina familiarekin hitz egin eta aste batez atzeratzea erabaki genuen, indarrean dauden mugak aldatzen ote diren jakiteko”. Arauak aldatuko ote diren zehaztu aurretik, pitxarra eta botilan zerbitzatu behar dute sagardoa, eta txotx-a, momentuz, debekatua dago. Eugenio ez dauka esperantza handirik, arauak aldatzeko: “Zaila da aste batetik bestera arauak hainbeste aldatzea, baina batek daki”. Beranduxeago irekiko badu ere, gerora ere “denboraldia luzatzeko tarte izango da”, dio itxaropentsu.

Denboraldiaz zalantza asko du Setien sagardotegiko jabeak: “Ez dakigu pandemiak zein bilakaera izango duen, zelako muga etor litezkeen, eta horrek jendearen gogoia mugatzen du beti. Etxekoak, edo gertukoak, urtero etortzen direnak hurbilduko direla badakigu, baina negozioak ondo joateko kanpoko jendea ere behar du, eta ez dakit horiek animatuko diren”. Pandemiarekin ohiturak ere aldatu direla dio Eugenio, batez ere gauetan sagardotegira joateko ohitura: “Gaua desagertze bidean dago. Gauko parranda gutxitzen hasia zen lehendik, eta horrekin afariak ere bai. Azken urteetan, gure negozio gehiena larunbat eta igande eguerdian kontzentratzen da. Ostiral gauetan ere egoten zen mugimendua, baina susmoa dut gauean etxeko epelean geratzeko joera hori egonkortuko egingo dela”.

Bestelako zalantzak ere baditu Urruzolak, bizitzaren garestitzeak eragin diezaikeen kaltea, adibidez: “Ez digu mesederik egiten. Oharkabea, dena igo da: argia, berogailua, elikagaiak... Eta soldatak, ez hainbeste. Sagardotegia, azkenean, albora daitekeen aisi-aukera bat da, sosik ez dagoenean, eta horrek ere zalantza asko sortzen dizkit”. Otsaileko lehen asteburutik aurrera, Setien sagardotegiko ateak zabal-zabalik izango dituzue.



Umiestako
udala

POSTONTZIA

ANDOAINGO COVID-AGIRIAREN AURKAKO TALDEA ANDOAIN

Sortu da Andoaingo covid-agiriaren aurkako taldea



Andoainean, beste herri askotan bezala, talde bat elkartu gara (bai txertatuak eta bai txertatu gabeak) covid-agiriaren zentzugabekeria aldarrikatzeko, ez baitu osasunarekin zerikusirik, baizik eta, erabaki politiko batekin. Ziur asko, agiri horren aurkako jarrera izango duzue andoaindar askok eta garrantzitsua iruditu zaigu talde bat bildu dela jakinaraztea.

Aspaldi honetan, agintari politiko eta hedabide ofizialen eskutik, iritzi bakarra zabaldu da, debate zientifikorik eman gabe. Eta, beste iritzi bat edo zalantza duenari, zigortu egin zaio: medikamentu esperimentalak edo txertoak ez jasotzea erabaki duena baztertua izaten ari da, hobe edo okerragoa den inongo

ebidentzi zientifikorik argitu gabe (mediku eta zientzilarien artean ere iritzi desberdinak baitaude). Triste da, kirolariek kiroldegian ezin sartu ahal izatea; kulturzaleek kultur ekitaldietan ezin parte hartu ahal izatea; umeez beraien kirol taldeetan ezin jolastu ahal izatea; gazteek ezin lehiatu ahal izatea; agureek bere lagun-taldearekin kartetan ezin jolastu ahal izatea; eta horrelako beste errealitate asko eta asko, gizartea nahastu eta gure arteko tirabirak sortu dituztenak.

Gure ustez, konstituzioko arauei kontrajarriz sortutako covid-agiriaren lege bidegabe hori ezin daiteke onartu. Gaur egun gizarteak sasi-lege hori onartuko badu, auskalo aurrerago beste zer beste legeri irekiko dizkion ateak. Hortaz, jabetu behar dugu!

Harremanetarako: "Kirola bai, Andoain" Telegram taldea.

"GURE USTEZ, COVID-AGIRIAREN LEGE BIDEGABE HORI EZIN DAITEKE ONARTU"

POSTONTZIA

EGUZKI TALDE EKOLOGISTA ANDOAIN

Autobus-zerbitzua hobetzeko sinadura-bilketa babesten dugu

Uztailaren lehen hasi zen autobus-zerbitzu berriaren kaosa eta haserrealdia. Egun batetik bestera, eta ia informaziorik gabe, autobus-zerbitzuan aldaketak eman ziren, eta, bereziki, ordutegi nahiz maiztasunetan eragin handia izan zuten.

Aurreko egunetan, autobus informatibo bat ibili zen Andoainean barrena informazioa banatzen, baina horrelako aldaketa batek dakarren guztia kontuan izanda, ekimen hori ez zen nahikoa izan gizarteari behar den bezala jakinarazteko. Izan ere, autobus-zerbitzua ehundaka bizilagunek erabiltzen dute egunero eta faltan bota genuen komunikabide handietan, bestelako egitasmoekin egiten dituzten publizitateak zabalak, bai telebistan eta bai idatzizko prentsan.

Aldaketa berriaren Donostiarako joan-etorrian zegoen maiztasuna murriztu egin zen. Lehen hamabost minuturo autobusa baldin bazeneukan Donostiara joateko, orain maiztasun hori murriztu egin da. Aldaketa honek ehundaka bidaiariei eragin die eta beraien egunerokotasuna hankaz gora jarri die. Ikustekoa zen uztailaren batean autobus geltokietan eman zena, jendea



geltokian noraezean, lanera berandu, informaziorik ez, iristen ziren gidariak ere galduak...

Aurreko autobus-zerbitzuak ere bazituen gauzak hobetzeko, baina bere alde indartsuena maiztasunarena zen; horregatik, aldarrikatzen dugu maiztasun hori berriro ezarria izan dadila. Aldaketa honek oztopo asko ekarri dizkie herriko hainbat eta hainbat bizilagunei.

Esleipen berriak zerbitzua hobetzeko balio behar omen zuen, baina erabiltzaileok berehala konturatu ginen ez zela hala izango. XXI. mendean Klima Larrialdi aro bete-betean eta Coronavirusak eragindako edukiera murrizketak tarteko, autobus kopurua batez beste heren bat baina gehiagoan murriztuz (lanegunak izan ala ez, baita ibilbidearen arabera aldea dago), erabiltzaileak pilatuago eta beharrak ase ezinik geratu

dira eta horrek beste garraio bide batzuetara jotzea ekarri du, kotxe pribatuaren erabilera handituz eta garraio publiko eta kolektiboarena gutxituz.

Ezin aipatu gabe utzi 2017ko urrian 1.000 andoaindarretik gora alegazioak sinatu genituela orduan aurreproiektua baino ez zen zerbitzu berriaren aurka. Alegazio horiek ez zuten erantzunik eduki, ez hitzez ezta ekintzez ere, herritarren borondateari bizkar emanaz. Ez dira Eguzkitik babesten ditugun printzipioak. Herritarrentzat onuragarria den hamabost minutuko maiztasuna berrezartzea exijitzen dugu!

Bestalde, herritar talde batek autobus zerbitzua handitzeko abiatu duen sinadura bilketa babesten dugu, bide horretan herritarrek sinatzera animatu eta bultzatu nahi ditugu.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeze ebeko harpidetza-sistema. Andoainean urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



PROTAGONISTA

"Herrian bertan kontsumitzea litzateke onena"

ANDREA CORMAN CASTRO LABORES ARANTZA

Andoingo Kale Nagusian, Bikoitz argazki-denda zegoen tokian, negozio berri bat abiatzen ari da. Laboreen tradizioa biziberritzera dator Corman gaztea

Erredakzioa ANDOAIN

Hilabete gutxi dira negozioa zabaldu zenuenetik. Zer moduzkoa izaten ari da harrera? Oso gustura nago. Ez nuen pentsatzen hain ondo hastea. Andoainen ez zegoen antzekorik, eta ez genekien zein izango zen andoainarren erreakzioa. Baina pozik nago. **Gaur egun meritu handikoa dirudi negozio berri bat zabaltzeak.**

Pandemia garaian gainera, arriskutsua dirudi. "Hasiko gara", erabaki genuen. Gure beharra somatzen genuen, artila eta antzeko produktuak erosteko aukerarik ez zegoelako.

Tailerrak antolatzen dituzue, ezta? Ez zen hasierako asmoa tailerrak antolatzea. Baina bezeroak eskatzen hasi zitzaizkidan, eta jendearen beharrei aterabidea ematea erabaki genuen. Puntuakoa tailerra eskaintzen dugu, eta



Andrea Corman Castro dendari gaztea, Kale Nagusiko dendan. AIURRI

dagoeneko lau talde ditugu. Bakoitzak bere maila eta bere erritmoa du. Otsailetik aurrera, beharbada, beste talde bat gehiago aterako da. Hilabetero ordaintzen da, eta batean huts eginez gero, ez da ordaindu behar izaten.

Adin-tarte jakin bati lotutakoa dirudi. Ba al da erreleborik?

Bai, gazteenek ere laboreak egiten dituzte. Amonen gauza dirudi, baina gazteak hurbiltzen ari zaizkigu.

Zein da zuen berezitasuna?

Originaltasuna, esango nuke. Betiko laboreak dira, baina biziberritu egiten dugu gure eskaintzarekin.

Zergatik egin beharko litzateke tokiko merkataritzaren alde?

Neronek produktu hauek Tolosan, Donostian edo internet bidez erosi behar izaten nituen. Herrian izanez gero, herrian bertan kontsumitzea litzateke onena.


Zer esango zenieke andoaindarrei?

Saia daitezela. Laboreei dagokionez, askok ez dute inoiz ezer egin eta horrek geldiarazi egiten ditu. Saiatzea da garrantzitsua, eta, azkenean, ondo egiten bukatzen dute.

Instagram kontua: @labores_arantza.

DATORRENA

Egunean Behin lehiaketa ezagunaren 9. denboraldia



Sagardoa, denboraldiko saria. AIURRI

Astelehenean, urtarrilak 31, abiatuko da Egunean Behin lehiaketa ezagunaren 9. denboraldia. Aski ezaguna da erronka euskaldunen artean, eta laster hiru urte beteko ditu Codesyntax enpresak garatutako proiektuak: "Hiru urte beteko ditu Egunean Behin jokoak denboraldi honetan eta zuekin ospatu nahi dugu". Urtarrilaren 31tik apirilaren 10a arte, hamar astez luzatuko da denboraldi berria.

Sagardoa, Aiurizaleen saria

"Aiurri" taldeko partaideen artean, astero, eskualdeko sagardoa zozkatuko da. Irabazlea "Aiurri" taldeko partaideetako bat izango da. Ez du zertan irabazlea izan. "Onena" ez, baizik eta "parte-hartzailea" saritzea erabaki duelako erredakzio-batzordeak. Saria eskuratu nahi duenak aste osoko partidak jokatu beharko ditu, nahitaez. Irabazlea Aduna, Amasa-Villabona, Andoain, Asteasu, Larraul, Urnieta eta Zizurkil udalerrietan bizi, ikasi edo lan egiten duena izan daiteke.

Eskualdeko produktuak

Aiurrik tokiko produktuen aldeko apustua egin nahi du. Aurreko bi denboraldietan, adibidez, Arruti gozotegiko kutxa eta Aspilla baserriko saskia zozkatu ziren. Zorte on!

EFEMERIDEA


2020ko urtarrilaren 30eko Greba Orokorra

ELA eta LAB sindikatuek agerraldi bateratua egin zuten, duela bi urte. Besteak beste, Lan Erreforma bertan behera uztea aldarrikatzen zuten, "herrialdeko hitzarmenen aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainetik" ezar zitezela aldarrikatuz. Pentsioen igoeran KPI-a bermatzea edota erretiroa 65 urtetan ezartzea izan ziren orduko aldarrikapen nagusiak. Gaurkoz, oraindik orain, puri-purian dauden aldarrikapenak dira.

BIZILAGUNAK

Andoingo Belabi kalekoen kexa

Azken hilabeteotan behin baino gehiagotan Belabi kaleko argindarrak huts egin du, eta kalearen zati handia ilunpetan geratu da. Berta bizi direnen kexa ez da berria, eta Andoain APP edo Aiurrira iritsi izan dira kexa horiek. Andoingo Udaletik adierazi dutenez, "Udaleko Zerbitzu saileko elektrizistak lanean ari da arazoaren jatorria topatzeko. Argindarrak salto egiten du, oraindik identifikatu gabe dagoen matxura baten ondorioz. Espero dugu arazoa ahalik eta lasterren konpontzea".



AIURRI


Egunean eguneko albisteak sarean



Andoaingo Koadrilen eguneko deialdia



Komunitatea: AEK eta Korrika 2022



Agenda: Eskualdeko hitzorduak



Egunean Behin: Denboraldi berria martxan

AITORTZA

ELOGE zigilu europarra lortu dute Andoainek eta Urnietak

EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak eta Europako Kontseiluak ematen duten 2021eko Gobernanzako Bikaintasunaren Europako Zigilua lortu dute bi udalerriek. Aurreko astean aitortza-ekitaldia egin zuten Bilbon, eta bertan izan ziren bi udaletako ordezkariak



Ezkerretik hasita, bigarrena Agurtzane Mercader Urnietako zinegotzia eta hirugarrena Maider Lainez alkatea. EUDEL

Erredakzioa ANDOAIN
Zigiluak tokiko gobernuen kalifikazio gorena egiaztatzen du, gobernu onaren, kalitatearen eta berrikuntza demokratikoaren 12 printzipioren arabera. Aitortza jaso ahal izateko hainbat atal aztertu dituzte: administrazio-izapideak, kontratazio-prozedurak, finantza- eta aurrekontu-kudeaketa, hautetsien jokabide etikoa, herritarrek parte hartzeko kanal edo organoak, gardentasun eta berrikuntza publikorako tresnak, eta giza eskubideen sustapena, berdintasuna, aniztasuna, inklusioa eta gizarte-koehioa.

Urnietako Udalaren izenean Agurtzane Mercader zinegotziak hitza hartu zuen: "Sari honek erakusten du Udalak egunero egiten duen lan guztia erakunde hurbila, arina, eraginkorra, gardena, parte-hartzailea eta etorkizunera begira dagoena

izaten saiatzeko, aurkezten diren erronkei modurik egokienean aurre egiteko. Helburu nagusia herritarren beharrei eta itzaropenei erantzutea eta Urnieta guztion artean eraikitzen jarraitzea da. Era berean ez dugu erlaxatu behar bereizgarri hori lortzearekin, izan ere, garrantzitsuena da modu berean lan egiten jarraitzea, gure gobernagarritasun-maila onari eusteko". Urnietako Udalak zabaldu duen oharrean zehaztu dutenez, Mercaderrek esker oneko hitzak izan zituen Udaleko langileentzat, "egiten duten lan bikaina goraiatuz eta sari hau horren isla dela" adieraziz.

"GARRANTZITSUENA DA MODU BEREAN LAN EGITEN JARRAITZEA"

AGURTZANE MERCADER, URNIETA

Andoaingo Udalaren izenean, Maider Lainez alkateak ere balioan jarri zuen Udal langileen ekarpena: "Erronka bat da proiektuaren bidez ahuleziak edo hobetzeko puntuak antzeman ditugulako, baina, era berean, gure indarguneak ezagutzeko aukera eman digulako, batzuetan ez baikara haietaz jabetzen. Eta aukera bat da, ezagutza horri esker, hobetzeko arloak martxan jarri ahal izango ditugulako. Abiapuntu ezin hobea da, herritarrekiko tratua, zerbitzu eta komunikazio hobea ekarriko duen metodologia ezartzeko, horiek baitira Udal honentzako funtsezko helburuak".

"JASOTAKO AITORTZA ERRONKA IZAN DA, ETA ERA BEREAN AUKERA BAT"

MAIDER LAINEZ, ANDOAIN



IRITZIA

XABIER LASA ANDOAIN

Txillardegia eta Donostia kosmopolita

Jose Luis Alvarez Enparantzak, Txillardegik, euskara eta euskal kultura sustatu nahian, hizkuntzalaritzan, soziolinguistikian eta literaturan egindako lanak merezimenduak badituela pentsatuta, bere jaioterriko makina bat euskal idazleak manifestu bat jarri zuten abian haren heriotzaren ostean. Alderdi Ederreko Liburutegiari bere izena ipintzeko eskatu zuten. Koldo Mitxelena eta Carlos Santamariak Donostian kultur-gune propioak dauzkaten bezala.

Hamarkada igaro da bere heriotzaz geroztik, eta entzungor jarraitzen du Donostian agintzen duten alderdiek. Are gehiago, biziberritu egin dituzte izendapenaren aurkako argudioak, bere heriotzaren urteurrenarekin batera.

Planteatzen diren aurkako arrazoien atzean zer dagoen susmatzeko, hipotesi ugari landu ditzakegu: memoria historiko euskaltzalearekiko eta antifrankistarekiko ezjakintasuna; euskara noranahi eta noiznahi zabaltzeko euskalgintzak frankismoan zein geroztik egindako lanarekiko ezjakintasuna (edo, jakin arren gutxieteko gogoia); biolentziaren gaineko etika neurtzeko makila bikoitzaren erabilera; maltzurkeria politikoa...

Arazoi izan liteke horietako bat, izan liteke bi edo gehiagoren konbinazioa, edo guztiak batera. Edo izan liteke, besterik gabe, merezimenduak onartzea bai, baina Donostiako bihotz-bihotzean kokatzen den liburutegi bati Txillardegiren izena jarriz gero, horrek eragingo lukeen eszenategia irudikatze hutsak, kakalarria sortzea. Alegia, *"Bibiloteca en pleno San Sebastián dedicada al fundador de la banda terrorista ETA autora de más de 800 asesinatos"* titular interesatuak atzetik ekarriko lukeen presio mediatico eta

politikoari eta biktime batzuen lobbyari aurre egiteko ausardiarik, gogorik, gaitasun politikorik ez edukitzea.

Txillardegia ETArekin sortzaileetako bat izatea aitortzarako arazo dela berretsi du Eneko Goia alkateak egunotan. Baina Txillardegiren biografian pittin bat sakontzea nahikoa da arrazoi hori indargabetzeko. Egia da 50eko hamarkadan, Antiguako semeak eta beste zenbait ikasleek Ekin talde independentista eratu zutela Bilbon. Euskal gaztedia heztea eta kontzientziaztea (Euskal Herriaren hizkuntza, historia, ohiturak...) eta frankismoaren aurkako borroka klandestinatorako prestatzea izan zen beren helburua. Arian-arian, 1959an, ETA erakunde politiko-militarra sortu zen; bere militanteek ahal zuten lekuetan ikurriñak ipini, plaka frankistak txikitu, pintadak egin eta antzeko ekintzak burutu zituzten lehenengo urteetan.

Txillardegik 1967an ETA utzi zuen, zuzendaritzarekin desadostasunak zirela medio. Eta handik urte batera, ETAk helburuak lortzeko pertsonak erailte zela erabaki zuen; horrela, Meliton Manzanos komisario torturatu zela erabaki zuen. Horixe izan zen aurrez pentsatutako bere lehen atentatu hilgarria; bi hilabete lehenago, Jose Antonio Pardines guardia zibila eta Txabi Etxeberrieta ETAkidea hilik suertatu ziren kontrol batean, Tolosan.

Horrenbestez, esan daiteke oker handirik gabe, Donostian gobernatzen duten bi alderdietan, edo beren ingurune ideologikoan, badagoela jendea –eta ez bat ezta bi–, Txillardegik baino erantzukizun handiagoa daukana ETAk 1968tik aurrera sortu zuen historia odoltsua gerta zedin. Portzierto, ariketa argigarria izan daiteke zerrendatzea 1968az geroztik



Donostiako Gaskonia plazan dago Txillardegiren aldeko murala. AIURRI

ETAn zenbait urtetan militatu, eta geroztik, Jaurlaritzan agintzen dutenen orbitan amaitu duten euskal herritarrek.

Azken batean, non dago alde Txillardegiren eta beste herritarren artean? Bada, desberdina izan dela batak eta besteek azken hamarkadetan egindako eboluzio politikoa. Alegia, Txillardegik ez zuela bidaiatu agintea daukaten horien posizioetara, beste zenbaitek bezala, eta, beraz, nonbait, ez zuela bakearen aldeko bide zuzenetik jardun, Jose Ignacio Asensio PSEko kideak esan berri duen eran ("Bakearen ideiarekin aurkako profil nabarmena izan zuen").

Txillardegia aitortzearen aurka egotearen haritik, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak urtarrilaren 23ko editorialean, gaztelaniaz, pauso bat harantzago eman zuen Txillardegiren aldeko eskaera definitzeko orduan: "Kontakizun birtuala eta faltsua, biktimei mina eta gizarteari frustrazioa eranstean dizkiona".

Hots, Txillardegik euskara batuaren, euskal kulturaren, euskal literatura modernoaren eta abarren alde egindako ahalegin guztia ukatzeaz gain, hori aldarrikatzeak "Biktimei mina eragitea" ekar dezake...

Biktimeen sentimenduen interpretatzaile profesionalak

halako dogma ukiezinarekin plazaratzen direnean, akabo debatea!

Donostia, kosmopolita

Landa-eremuan bizi garenok Ibaetako unibertsitate inguru horretan autoa utzi eta oinez Antigua auzora, Ondarretako hondartzara edo zentrora abiatzen garenean, kaleetako hormetan erreparatzen hasten bagara, hor irakurriko ditugu kale eta plazan izenak, zein baino zein "kosmopolitagoak": Alfons XIII. Plaza, Juan Infantearen kalea, Kristina Infantaren kalea, Beatriz Infantearen kalea... Geure buruari galdetuko diogu agudo asko "Nora etorri naiz? Zein hiri klase da hau, herriaren ongizateari bizkar emanez bizi izan den, eta bizitzen segitzen duen instituzio monarkiko anakroniko, ez-demokratiko eta parasitarioko kideak goratzen dituen?". Mundura zabalduko hiri kosmopolita saltzen zaigun hori, alajaina, bai kosmopaletoa! Donostiako beste hainbat auzotara joanda, zentro aldera batik bat, antzeko sentsazioa sentituko dugu.


Hiri edo herri bateko kale izendegia ez da huskeria. Bertan bizi den giza taldearen memoria historikoa azaleratzen du, zenbat (eta zenbat ez) estimatzen dituen bere herriko seme-alabak eta horiek protagonizatzen dituzten gertakizunak, istorioak... Alde horretatik, Donostia, Gipuzkoan dagoen herri edo hiririk karkana, kontserbadoreena, elitistena, boteredunekiko menpekoena, eta, bere kulturaren eta ongizatearen alde benetan jardun dutenekin esker-tzarrekoena dugu.

Donostiako kale izendegia inork ez bezala aztertu duen Josu Tellabide etnologoak idatzi –eta salatu– izan du behin baino gehiagotan, besteak beste, jende burgesak, aristokratek, negozio-gizonek... agindu izan dutela

Donostian (eta agintzen segitzen dutela hein batean), eta beraiek nahi izan dituztenak goratu dituztela kale izendegien eskutik.

Tellabidek Berria egunkarian 2016/08/26an idatzitako artikulutik, hona pasarte bat: "XIX. mendearen bukaeratik, XX. mendearen hasierara arte, euskara zen nagusi, eta herritarren hizkuntza bakarra. Donostiako burgesek bakarrik erabiltzen zuten gaztelania. Haiek, garai hartan, orain bezalaxe herritarren hizkuntza gutxiesten zuten. Orduan erabaki zen kale berri gehienetan erreginen, militarren, kolonizatzaileen edo espekulatzaileen izenak jartzea: Okendo, Marques de Salamanca, Jose Gros espekulatzailearen auzo izena, General Etxague, Avenida de la Reina, Reina Regente... (...) Geroztik, 1990. urte aldera, Udalak irizpide onarekin erabaki zuen bertako izenak, baserri izenak eta toponimia errespetatuko zela, baita hiriarekin lotura duten kultura pertsonaiak, emakumeak lehenetsiz, jarri behar zirela ere. Gaur Udaleko talde politikoak erabaki hau partzialki betetzen du, tartean sartuz eta inposatuz euren gustuko edo ideologiako izenak".

Tellabidek aipatzen duen sektarismo politikoaren adibide esanguratsuetako bat demokraziako azken urteetan eskaini zaigu: Antigua auzoan, Txillardegia jauregia egon zen plazari, "Gaskonia plaza" izena jarri diote ez aspaldi. Kale izendegia ezartzerakoan bertako toponimia egonez gero, bera errespetatzea izaten da irizpide egokiena. Baina kasu horretan, ez zuten horrela jokatu nahi izan udal agintariak. Txillardegik hitzak belarrarian min ematen zien, nonbait. Bada, plaza horretantxe egin ohi dira Txillardegiren izena eta izana gogoratzeko omenaldiak, urtarrilero.



Olatua gehiago jaitea nahiko genukeen arren, 7 egunetako intzidentzia-tasan aldagai gehienegatik egonkortzea eman da. C19ANALISIA

Kostako da hobekuntza argia ikustea

Gabonetan arreata-zerbitzuek gainezka egin ostean, positiboak antzemateko eta jarraipena egiteko protokoloak aldatu egin zituzten. Datuak hobetu ziren, orduan. Aldiz, ospitaleetako okupazioan begirada jarritz gero, olatuaren tamaina zein den argi ikus daiteke

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"Egoerak txarrera egiten du, ez goaz ondo". Esaldi hori errepikatzea gogoko zuen Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak, 2021. urtearen amaierako agerraldi ia guztietan. Urte berrian sartzean ez du bide beretik jotzen, eta joera aldaketa baten zantzuak antzematen direla errepikatuzera pasa da. "Zuhurtzia azpimarratu behar dut", erantsi zuen, astearteko agerraldian. Ez da gutxiagorako. Dagoeneko ezinezko bilakatu da positibo guztien jarraipena egitea, eta, beraz, ospitaleetako okupazioak ematen digu seigarren olatuaren neurria. Eta, joera aldaketa ematen ari dela badio ere, oso erritmo gel-

Heriotza ugari azkenaldian

Iturria: Osakidetza.

Heriotzen berri	
2022/01/23	117
2022/01/16	78
2022/01/09	50
2022/01/02	35
2021/12/26	30
2021/12/19	38
2021/12/12	19
2021/12/05	19
2021/11/28	18
2021/11/21	5
2021/11/14	6

doan ematen ari da. Izan ere, Osakidetza egoera estu-estu dago. 790 lagun ospitale-sarean, 112 lagun zainketa berezien unitateetan. Eta heriotza-kopurua, oso kezagarria. Astez aste igotzen ari da maila nabarmenean. Azaroko hirugarren astean 18 heriotzen berri eman zuten. Abenduaren hirugarrenean 30eraino igo zen hildakoen kopurua. Urtarrileko hirugarren asteak 117 lagun heriotza ekarri du.

Benetako hobekuntza ospitaleetako okupazioa eta hildakoen kopurua nabarmen jaisten denean gertatuko da. Eta, datuak eskuetan, kostako da hobekuntza argia ikustea.

NIRE USTEZ

URKO VALLEJO C-19 ANALISIA

Asteleheneko datuak ez ziren batere onak izan

Gobernariak kontrakoaz konbentzitu nahi badigute ere, Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 17tik 23ra bitarte jasotzen dituen datuak ez dira batere onak izan.

Honako hauek urtarrilaren 24an aditzera emandako datuekin atera daitezkeen ondorioak:

- 7 egunetako intzidentzia-tasa egonkortzen hasi da.
- Positibitatea egonkor mantentzen ari da.
- Positibo sintomatikoak egonkortzen hasi dira.
- Ospitaleratutako egonkortzen hasi dira.
- Hildakoei igotzen jarraitzen dute.
- Eguneroko ospitalizazio berriak egonkortzen hasi dira.
- Nagusien intzidentzia-tasa ere egonkortzen hasi da.

Koronabirusak ez ditu egoera egonkorak gustuko. Adierazleak egonkortzen direnean, kontrako norantza hartu ohi dute. Ondorioz, litekeena da, ondorengo egunetan egoerak okerrera egitea.



Ospitaleetan eta ZIUtako okupazioa moduko antzematen da. C19ANALISIA

Osakidetza ospitaleetan okupazioa oso handia da oraindik

Osakidetza ospitale-sarean dauden lagunen kopurua ez da hain erraz jaisten ari, eta horrek seigarren olatuaren tamaina zein den adierazten digu. Urtarrilaren 11n 840 ohe okupatuta zeuden, eta horixe izan da hasi berri dugun 2022ko daturik handiena. Jaisten ari bada ere, urtarrilaren 23an 730eko okupazioaren berri eman zuten. Gorabeheratsua izaten ari da okupazioa, baina beti ere oso zenbaki handietan. Urtarrilaren 18an 709 ziren, urtarrilaren 21ean 669, urtarrilaren 22an 693 eta urtarrilaren 23an 730. Beherantz doan abiadura berean igotzen ari da, joaten ari zaigun hilabete honetan. Egunkortze egoeratik urrun, oraindik.

Zainketa berezien unitateetan jaitsiera ematen ari da, baina oso geldo izaten ari da. Urtarrilaren 10ean 139 lagun zeuden UCI-ZIUtako. La bi astera kopurua ez da hainbeste jaitsi. 112ko okupazioaren berri eman zuten urtarrilaren 23an.

Ospitaleratze berrien kopuruan antzematen da jaitsiera bat. Hainbat egunez 100 laguneko langan egon ondoren, azken bi egunetan jaitsi da kopuru hori (72 eta 64). Joera ona ekar litezkeen heldulekua litzateke.



Fede Cavalle Urnietako instalakuntzatan. AIURRI

“Neskek eta mutilek helduok adina ardura erakutsi dute”

FEDE CAVALLE URNIETAKO ESKOLA KIROLEKO ARDURADUNA

ESKOLA-KIROLA Urnietako Eskola-Kirola ekimeneko arduraduna da. Buruhauste franko izan ditu azken bi urteetan, bai berak, bai hezitzaile eta irakasleek

Andoni Urbistondo URNIETA

Ostiral honetan eskola kiroleko arau murriztaileak bertan behera geratzeko itxaropena dauka. Umeek ardura handia erakutsi dutela dio, baina baita dagoeneko nazkatuta daudela, “denok bezala”.

Ostiral honetan LABI teknika delakoa bilduko da neurriak aztertzeko. Zein da momentuko egoera, nola bizitzen ari zarete murrizketa arau sorta berria?

Umeak gure, jendartearen ispilua dira, eta antzera gaudela

esango nuke. Eskola kirolean ia bi urte dagoeneko arau murriztaileekin, eta beste guztiontzat bezala, ez da erraza izaten ari. Haurrek mugimendua behar dute, osasun eta sozializazio aldetik. Iazko urtarrilean arau murriztaileak bertan behera geratu zirenean, haurrek sekulako gogoarekin hartu zuten itzulera. Hor berriro atzera egin genuen hiru bat aste, burbuilak eta beste antolatutako behar izan ziren... Zailena hezitzaile eta haurrentzat izaten ari dela esan-

go nuke. Urnietan taldeak 15-16 haurrekoak dira, gehienez, eta talde barruan burbuilak egin behar izatea...

Nola dago antolatuta Urnietan eskola kirola?

Bi ikastetxe daude, Magale eta Egape, baina Urnietan bi ikastetxeetako haurrek elkarrekin entrenatzen dute, herri moduan, eta ez ikastetxe bakoitza bere aldetik. Gure unitateak Urnietan izena du, ez Egape alde batetik, Magale, bestetik. Gipuzkoan horrela egiten den baka-

rretakoa da. Mailakako bana-keta egin behar da, eta burbuilekin eta beste entrenamenduak antolatzea ez da batere erraza hezitzaileentzat. Talde batean lau ume, bestean hiru, hurrengoan bi, ezin nahastu...

Zenbat ume daude Urnietan eskola kirolean?

135. Benjaminak, 8-10 urte artekoak, 65 ume, eta alebinak, 11-12 urte artekoak, 73.

Lehiaketarik ere ez dago.

Ez. Gu Usurbilekin batera aritzen gara futboleko, eskubaloian... Abenduan bertan behera geratu zen lehiaketa. Orain Urnietako haurren arteko lehiaketak eta topaketak bakarrik antolatzen ditugu, eta hori ere muga bat da, ze haurrentzat pizgarria da Usurbilgoen aurka lehiatzea, hara joatea, haiek Urnietara etortzea... Herriko jendearekin lehiatzeak ekintza bera indargabetzen duela esango nuke.

Maila batzuetan lehiaketak baimendu dituzte agintariek, eta besteetan ez. Ulergarria al da hori?

Ni ez naiz aditua. Kontraesan asko ditut, denok bezala. Anotan estadioa beteta, ume edo gazteen tanborrada Donostian... Gure artean lehiaketarik ez, baina entrenamenduak bai. Ulertzen dut arau batzuk daudela, eta denok bete behar ditugula, baina... Benjamin eta alebinen lehiaketa debekatu dute, baina infantil eta kadetan ez. Esango nuke badaezpada dako politika eraman dela aurrera. Alegia, ahalik eta gauza gehien mugatu, badaezpada horren baitan. Gero, adibide pilo dugu, badaezpada dako politika horri muzin egin zaiola erakusten dutenak...

Kanpotik itxura du gurasoek, hezitzaileek egindako eskaerei muzin egin dietela arduradun politikoak, eta hortik, noski, askoren haserrea.

Eskatzea librea den bezala da agintariek zure eskaerak aintzat hartzea edo ez. Sagardui kontseilariak agerraldia ematen duen aldiro ni neu dardarka hasten naiz... Arauak bete egin behar dira, horraino ados, baina kritikiko izateko aukera ere eduki behar da, eta itxuraz aukera, eskubide hori ere mugatu zaigu.

Gurasoek euren haserrea transmititu dizute?

Niri ez. Ez gurasoek, ezta irakasleek ere. Idatzi baten bitar-

tez jakinarazten dizkiegu arau berriak, eta ez digute haserrik transmititu.

Eta haurrek? Nola bizi izan dute egoera lazarri hau?

Nik ere seme bat daukat, baina pandemian gure ardura bera, edo handiagoa eduki dutela esango nuke. Gainera, pandemiak behartuta, bizkorrago heldu direla esango nuke: musukoa eraman beharra, distantziak gorde beharra etxekoekin... Akaso gazteegiak dira horretarako, baina tira. Gerta liteke ere entrenamenduak eta gogorik gabe hartzea, azkenean entrenamendua delako, ez lehiaketa. 16 haur elkar jolasten, edo hiru ume aritzea zeharo ezberdina da. Saskibaloian bi biren kontra aritzea, adibidez, oso normala ez da.

Gurasoei buruz galdetu dizut. Haurrek galdetzen dizute, ea noiz bukatuko den egoera hau?

Bai, bai. Nazkatuta daude, gu bezala. Aterako dute, dugu, zerbait positiboa, egoera honetatik. Haiek eta guk.

Umeen hazkuntzan albo kalterekin bat izan dezakete arau murriztaileek?


Han eta hemen irakurtzen da, espezialista batzuk diote traumak eragin ditzakeela. Tokatu zaien zerbait da, eta gestionatu egin beharko dute. Informazio asko jasotzen dute, eta horren gestioa funtsezkoa da.

Gerta liteke kirolaren faltan, energia hori askatzeko beste bide ez hain osasuntsuak erabiltzea?

Gerta liteke. Ordenagailua, sakelakoa, edo tablet-arekin komenigarria dena baino denbora gehiago pasatzea. Lagunekin egoteko beharra daukate, jolastu, baina ez etxean, tablet-aren aurrean, aire librean edo lagunekin baiziki. Horrek bai beldurtzen nau, gurasoek haurra parkera eramateko beldurra izatea. **Zein esperantza ostiral honetarako?**

Murrizketekin bukatzeko esperantza. Birusaren beste aldaiaren bat etorriko da, dena den. Esaten dutenaren arabera, otsaileko lehen asteburuan itzuliko ginatke “normaltasunera”.

“HAURREK MUGIMENDUA BEHAR DUTE, OSASUN ETA SOZIALIZAZIO ALDETIK”



Atzean, zutik, Ansa (ezker) eta Goikoetxea (eskuin) urnietarrak. ORIAMENDI

Ansa eta Goikoetxea urnietarrak aurrez aurre, Galarretan

ERREMONTA Larunbat arratsaldean jokatu da. Irabazlea final aurrekora sailkatuko da

Erredakzioa ANDOAIN

Buruz Buruko Kutxabank Torneoeko sei erremontista onenak jokatzeko ari dira Iparlur Masters Txapelketa. Hauexek dira: Zubiri, Goikoetxea V, Juanenea, Ansa II, Urriza eta Barrenetxea IV.a. Aurreko asteburuan abiatu zen txapelketa berria eta asteburu honetan bi urnietarren arteko lehia iritsiko da. Izan ere, elkarren aurka lehiatuko dira Ansa II eta Goikoetxea V. Urtarrilaren 22an Juanenea eta Zubiriren arteko partidarekin abiatu zen txapelketa (30-17). Juanenea final aurrekora pasa da.

Txapelketako bigarren partida urnietarren artekoa izango da. Goikoetxea seigarren sailkatu zen Kutxabank Torneoan eta Ansa hirugarren.

Lehenengo finalerdia otsailaren 5ean izango da, eta Urriza nafarrak Ansa eta Goikoetxearen arteko partidako irabazlea izango du kontrario.

Bigarren finalerdia Barrenetxea IV.ak jokatu du Juanenearen aurka, otsailaren 12an. Gogoratu behar da Barrenetxea dela Banakako txapelduna eta Urriza azpi-txapelduna. Finala otsailaren 19an jokatu da.



EUSKALDUNA

Jubenil mailako garaipena

FUTBOLA Lasarte-Oriako Michelin futbol zelaian jubencil mailako Euskalduna taldeak garaipena lortu zuen, Kopan. Ligan lortutako emaitza errepikatuta, gainera (Ostadar 1-2 Euskalduna). Urnieta B taldeak Hernani garaitu zuen (1-10). Sailkapenean Intxurre doa lehen postuan, Urnieta B bigarren eta Euskalduna bosgarren postuan.

FUTBOLA Jubencil mailako Urnieta A taldea, iguera fasean

Lehen bi partidak irabazi eta gero, hirugarren partida galdu zuten Lazkaoren aurka (1-4). Une honetan Urnieta hirugarren sailkatuta dago, Inter eta Lazkaoren atzetik. Asteburuan Interren zelaian ariko dira (igandea, 30. 09:00tan). Inter igoerako ligaxkan partida guztiak irabazi dituen talde bakarra da.

SASKIBALOA Ganbara junior mailako garaipena Erreterian

Partaidetzako Ligaren amaiera sartuta, aurreko asteburuan Oiarso taldearen aurka garaipena eskuratu zuten andoaindarrek (39-52). Igandean Mondragon Unibertsitatearen kantuan jokatu dute (17:00), sailkapenean aurretik duten aurkaria hain zuten.

FUTBOLA Andoaingoen berdinketa Ohorezko jubencil mailan

Ligako 16 partida jokatu, Euskaldunari kosta egiten ari zaio puntuak pilatzea. Aurrekoan, ordea, Beasaingo zelaian puntu bat lortu zuen (1-1).

Bederatzigarren denboraldia, profesional mailan

TXIRRINDULARITZA Clásica

Comunitat Valenciana lasterketarekin denboraldi berriari hasiera eman dio Euskaltel Euskadi taldeak. 175 kilometroko lasterketan, Mikel Iturria 35. postuan sailkatu zen. Iturria aurrealdean iritsi zen, duen erregulartasuna berretsiz. Bederatzigarren denboraldia du profesional mailan, berak sareetan gogorazi zuenez. Eskarmentua, beraz, aldeko izango du 2022an.



ANDOAINGO

Ziklo-krosaren ostean, pista

PISTA Urtarrilaren 16an Donostiako Belodromoan pistako Gipuzkoako txapelketa antolatu zuten, eta bertan parte hartu zuen Andoaingo Txirrindulari Eskolako Izaro Etxarrrik. Proba-sortaren ostean hirugarren postua lortu zuen. Ziklo-krosean bikain aritu ostean, pistan trebea dela erakutsi zuen. Udaberriarekin batera errepideko denboraldiari ekingo dio.

Gaztañagaren gol ikusgarria

FUTBOLA Espainiako futbol jarraitzaileen artean zeresana eman duen gola sartu zuen aurreko asteburuan Jon Gaztañaga andoaindarrek. Urteko lehen partida zuten Leonen, eta Real Union taldearen aurka sekulako gola sartu zuen (1-1). Urrutitik golak egiten arrastoa uzten ari da Errumanian, Zipren edota Espainiako RFEF Ligan.



C.LEONESA



MARKEL BAZAN



Kiroltasuna nagusitu zen Andoaingo eta Urnietako senior mailako nesken arteko partidari. UKE

Emozioz beteriko partida Allurralde kiroldegian

ESKUBALOIA Berdinketa ez zen azken unerarte hautsi, eta azkenerako Leizaran taldea nagusitu zitzaion Urnietari (25-24). Partida ikusgarria izan zen, hasieratik amaieraraino. Bi taldeek ere maila bikaina erakutsi zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietari Quel Abogados taldeak ezin izan zuen garaipena eskuratu Leizaranen aurkako derbian (25-24), eta lehen itzuliaren amaieran are gehiago estutu da sailkapena. Berdintasun handia dago lehen zazpi taldeen artean, bost puntuko aldea besterik ez baitago lehenengoaren eta zazpigarrenaren artean. Urnietarrak Gipuzkoako txapelketaren lehen postutik aldendu dira, baina, hala eta guztiz ere, postu onean jarraitzen dute. Etxean lortutako garaipenari esker, andoindarrak ere gora begira jarri dira.

Partida ikusgarria izan zen hasieratik bukaerara, zeinean Andoaingo neskek gol bakarreko aldearekin gailendu ziren.

LEHEN ITZULIAREN AMAIERAN BERDINTASUN HANDIA DAGO LEHEN ZAZPI TALDEREN ARTEAN



Gertutasuna dela eta, bi taldeetako zaletuak hurbildu ziren Allurraldera. UKE

UKE taldekoek erasoan ez ziren fin ibili eta andoindarrak abantaila hori baliatu zuten markagailuan agintea hartzeko. Urnietarrak bi asteko atsedena izango dute bigarren itzulia hasi aurretik.

Leizaran taldeak, aldiz, Ereintza aurkari zaila jasoko du etxean otsaileko lehen asteburuan.

SENIOR MAILA, NESKAK

13. JARDUNALDIA

Leizaran-Urnietari **25-24**

SAILKAPENA

1	Elgoibar	19 puntu
2	Ereintza	18 puntu
2	Urnietari Quel	17 puntu
4	Leizaran	16 puntu
5	Munttarpe	14 puntu
6	Tolosa	14 puntu



Barakaldon ateratako argazkian. LEIZARAN

Esperientzia bikaina Leizaran taldeko kadeteentzat

ESKUBALOIA Kirol jardunaldiaren protagonista izan ziren, Euskal Ligarako ligaxkan parte hartu baitzuten

Erredakzioa ANDOAIN

Ligaxkan lortutako laugarren postuari esker, Euskal Ligarako sailkapen fasea jokatu du Leizaran Imatel Telecomunicaciones kadete mailako taldeak. Barakaldon hiru partida jokatu zituzten, hiru egunez jarraian Barakaldora joan-etorrian. Sailkapena lortu ez badute ere, "esperientzia ikaragarria" izan da andoindarrentzat. Hiru partiden emaitzei erreparatuta, Barakaldoko taldea nagusi izan zela argi ikusten da. Gainerakoan, parez pare ibili ziren Tolosa, Urola eta Leizaran.

Ligari amaiera emateko ligaxka izan da. Andoindarrek 12 partida jokatu zituzten, horietatik 9 irabaziz eta hiru partidu galduz.

Lau talderen arteko ligaxka

Hiru partida, ostiraletik igandera:

- Tolosa 33-27 Leizaran.
- Barakaldo 42-19 Leizaran.
- Leizaran 25-27 Urola.

Sailkapena:

1. Barakaldo, 3 garaipen.
2. Tolosa, 2 garaipen.
3. Urola, garaipen 1.
4. Leizaran, garaipenik ez.



EUSKALDUNA

Garaipenaren pareko berdinketa

FUTBOLA Euskaldunako Gorengoen mailako neskek ez zuten etsi, eta garaipenaren pareko berdinketa lortu zuten Kopan. Eguraldi hotz horrekin, zestoarrek aurrea hartu zuten markagailuan. Baina etxekoek berdinketa lortu zuten, galtzen joan eta gero (2-2). Mutriku taldearen aurka jokatuko dute asteburuan, oraingoan ere Ubitarte zelaietan (larunbata, 29. 18:00).



Larramendiren irudiaren aurrean aurkezpena egin zuen Jon Unanue Larramendi Bazkuneko zuzendariak. AIURRI

Garagorriena egitasmoa

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak egitasmo handi bati ekin nahi dio: Euskaltzaleen kontzientzia pizten bidegile izan zen Manuel Larramendiren interpretazio gunea sortu nahiko luke, Andoainen. Fundazioa sortuz izango litzateke, Udala eskutik hartuta

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Jon Unanue Larramendi Bazkuneko zuzendariak hartu zuen hitza bileran, etorkizunari begira duen apustu handiaren berri emateko: "Aspaldiko asmo bat berritzera dator Garagorriena egitasmoa. Duela hamabost bat urte Udalarekin eta eskualdeko beste udalekin eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere fundazioa sortzeko bidean izan ginen, baina, azkenean, atzera egin behar izan genuen. Denbora tarte honetan beste saiakeran bat izan bada ere, gaur aurkeztuko dugun egitasmoak Garagorriena du izena. Larramendi Bazkunak aurtan 30 urte beteko ditu, eta hasieratik genuen asmo bati behingoz heldu nahiko genioke. Zein da asmo hori? Manuel Larramendiren biografiari eta bereziki bere obrari dagokien

balioa ematea. XX. mendean Manuel Larramendiren irudia eta bere obraren balioa asko gutxietsi zen. Karikaturizatzeraino iritsi zen bere irudia. Errealitatea guztiz bestelakoa da. Larramendik bere bizitza osoan estrategia oso zehatza izan zuen euskalgintza eta euskararen etorkizuna suspertzeko eta bermatzeko".

Bazkunak, 30 urte, Ezina Ekina liburuak, 300

2022an, beraz, hogeita hamar urte beteko dira Larramendi Bazkuna sortu zela. Etorkizunari begira jarrita daude, 2029ra hain zuzen. Fundazioa sortuta eta Larramendiren gaineko interpretazio gunea sortuta iritsi nahiko lukete data seinalatu horretara. Eta zergatik 2029a? Bada, euskaltzaleen ahalduntzean ezinbestekotzat hartzen

den "El Imposible Vencido-Ezina Ekina" lehen euskal gramatika liburua argitaratu zela 300 urte beteko direlako.

Egitasmo handia da, zalantzarik gabe. Bide horretan ezinbestekoa izango da Andoaingo Udalaren laguntza.

Manuel Larramendi Garagorri jesuita, idazlea, intelektuala

1690eko abenduaren 25ean jaio zen, Goiburuko Garagorri base-rrian. Azpeitiko Loiolan zendu zen 1766ko urtarrilaren 29an. Itzal handiko lanak argitaratu zituen: "De la Antigüedad y universalidad del Bascuence en España (1728)", "El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Vascongada" -"Ezina Egina"- (1729) edota gaztelania-euskara-latina "Hiztegi Hirukoitza (1745)".

Politikan Gipuzkoako foruen defentsa sutsua egin zuen.

Aurkezpen ekitaldia Basteron




Istitza jauregia, Karrikan. Bertan kokatuko litzateke egoitza. AIURRI

2029ra bitarteko egitaraua Fundazioaren sorrera eta egoitzaren egokitzapena data seinalatuan amaitu beharko lirateke. 300 urte beteko baitira Manuel Larramendik *El Imposible Vencido* -euskaraz, *Ezina Egina*- euskarazko gramatika idatzi zuenetik.



Ikerketa lan ugari argitaratu eman ditu Larramendi Bazkunak. AIURRI

Helburu nagusiak Alde batetik, Manuel Larramendiren bizitza eta obra interpretatzeko gunea. Beste alde batetik, elkartearen ekimenak bideratuko lirateke: Ikerketarako eta zabalkunderako egitasmoak, Rikardo Arregi mintegia...



Jon Unanue, bazkideen aurrean hizlari. AIURRI

Bazkideekin partekatutako hausnarketa Astelehen arratsaldean Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan elkartu ziren Larramendi Bazkuneko bazkideak. Entzuteko eta ekarpenak egiteko aukera izan zen.



Eduardo Arresegorren argazkiak daude ikusgai, besteak beste, erakusketan. AIURRI

Argazkiak artelan

Trentxiki argazki elkarteak “Miszelanea-Trentxiki AE 10 urte” izeneko erakusketa ipini du Basteron. Hamar urteko ibilbidean, bere zenbait kidek egindako argazki-bildumak ikusi litezke erakusketan

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoainen eta eskualdean aski ezagunak diren lagunak elkartu dira, erakusketarako. Hauexek: Igor Tuduri (“Betiko galderak; galdera garaikideak”); Itziar

Gutierrez (“Evaren alabak”); Eduardo Arresegor (“Belchite. Zatiak”, eta, “Analogiak/kontraesanak”); Pablo Artetxe (“Patibancario”); Aitor Regillaga (“Faklipsea”); Antonio Fernan-

dez (“Naturako zenbait une bakar eta iragankor”); Iñaki Epelde (“Argi apalean”); eta, Argia kolektiboa (“Itzalen jokoak”). Erakusketa datorren otsailaren 25a arte zabalik dago Basteron.



Ikusle bat Itziar Gutierrezen “Evaren alabak” argazki-muntaia begira. AIURRI

Antia literatur lehiaketa, aukera bikaina idazle gazteentzat

Urnietako Udalak edizio berria antolatu du. Idazlanak bidaltzeko aukera zabalik dago martxoaren 18ra arte

Erredakzioa URNIETA

Ohiturari eutsita, XXVIII. On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketa antolatu du Urnietako Udaleko Euskara Sailak. Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea eta martxoaren 18 izango da horretarako azken eguna. Adinaren arabera bereizitako bi kategorია osatu dira aurtin: haurrena eta gazteena.

Haurrak

Haurren kategoría: 12 urtetik beherakoek osatzen dute, eta herritarrak edo herriko ikastetxe bateko ikasleak hartu deakete parte. Lanen luzeera 2-4 orrikoa izango da. Irabazleak tableta eskuratuko du, eta bigarrenak eta hirugarrenak Ebook bana.

Gazteak

Gazteen kategoría: 12-16 urte bitartekoak, herritarrak edo herriko ikastetxe bateko ikasleak. Lanen luzeera 3-8 orrikoa izango da. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du, bigarrenak 300 eta hirugarrenak 150 euro.

Kategoría guztietan ipuinak euskaraz idatziak izan beharko dira, originalak, beste lehiaketa-

taren batean saririk jaso ez dutenak eta argitara eman ga-beak.

Ipuinen gaia librea izango da

Lehiakide bakoitzak gehienez lan bat aurkez dezake. Ipuinek izenburu bana izan beharko dute, eta goiburua erabili ahal izango da. Lanak mekanografiatuak aurkeztu behar dira, DIN A-4 neurriko orrietan, alde batetik bakarrik idatzita eta lerro artean tarte bikoitza utziz. Hiru kopia aurkeztuko dira, egilearen arrastorik gabe eta gutunazal itxi batean sartuta.

Lanen aurkezpenari dagokionez, eskutan jasoko dira edota, bestela, posta arruntez igorriko dira ondoko helbide honetara: Lekaio kultur etxea, San Juan plaza z/g 20130 Urnieta (Gipuzkoa).

Epaimahaia

Epaimahaikide izango dira Euskara eta Sustapen sailtako ordezkariak, euskara teknikaria eta literaturgintzaren arloko bi pertsona.

Lehiaketaren oinarriak bere osotasunean Urnieta.eus webgunean irakur daitezke.



2012. urteko irabazleak. AIURRI

Hemeroteka

2012ko edizioko saridunak, Mikel Pagola orduko alkatearekin eta David Rosco sustapen zinegotziarekin batera. Argazkian gazteen mailako saridunak (Edith Giganto, Idoia Gorroño eta Andrea Isasa) eta haurren mailakoak (Leire Garin, Aritz Lekuona eta Unai Errazkin).

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 27

ANDOAIN Erakusketa

Trentxiki argazki elkartearen eskutik: "Miszelanea-Trentxiki AE 10 urte". Astelehenetik ostiralera: 18:30-20:00. Asteartetan itxita. Larunbata: 10:30-13:30 / 18:00-20:30.

Otsailaren 25a bitarte. Bastero.

ANDOAIN Sinadura-bilketa

Herritar talde batek uztailetik hona indarrean dagoen bus kontzesio edo emakida berriarekin desadostasuna agertu du, eta hainbat proposamen egin nahi dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Proposamen horiek babesteko sinadura kanpainari ekin diote.

Urtarrilaren 29ra arte.

URNIETA Odol-ematea

Adi! Oraingoan Plazido Muxika plazan dagoen Gaztelekuan egingo da odol-emate saioa. Boluntarioek ondorengo telefono zenbakira deitu beharko dute, txanda hartzeko: 943 00 78 85.

16:30, Gaztelekua.

LARUNBATA 29

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Kui Kui" izena du Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizun berrienak. Azken orduko itzulketarik ez badago behintzat, iragarrita dauden bi saioetarako sarrerak agortuta daude.

16:30 / 19:00 Bastero.

Andoingo Koadrilen eguna

Urtarrilaren 31n antolakuntzari ekiteko bilera egingo dute Irunberrin, arratsaldeko 18:00tan hasita. Bi urteren ostean, modu egokian Santa Krutz festetako egunik bereziena antolatzen hasi nahi du Jai Batzordeak: "Ezinbestekoa da herriko gazteak antolakuntzan parte hartu eta murgiltzea". Gauzak horrela, Andoingo gazteei bileran parte hartzeko deialdia luzatu zaie.



Unidad Alavesa taldea. AIURRI

ANDOAIN Kontzertua, Gaztetxean

Herdoil eta Unidad Alavesa taldeak zuzenean ariko dira, Andoingo Gaztetxean. Ataunen sortutako country-folk-rock taldea da Unidad Alavesa. "Made in Germany" izena du iaz argitara eman zuten diskoak.

Urtarrilak 29, larunbata. 21:00, ate irekiera. 23:00, hasiera. Gaztetxea.

URNIETA Batzar Orokorra

Denda Berri adinekoen egoitzan bertan egingo dute Ohiko Batzar Orokorra. 17:00etan lehen deialdia eta 17:30ean bigarrena.

17:30, Denda Berri.

ANDOAIN Kontzertua

Herdoil eta Unidad Alavesa. Sarrerak egunean bertan erosi beharko dira.

22:00 Gaztetxea. 8 euro.

ASTELEHENA 31

ANDOAIN Bilera

2022ko Santakruzetako Koadrilen eguna antolatzeko deialdia.

19:00 Irunberrin elkartea.



AIURRI

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Vuelta a casa de mi hija.

Igandea, 30. 19:30.

Ilargirantz.

Haurrentzat

Igandea, 30. 17:00.

OPERA

Emanaldi bereziak

Basteron

Sleeping beauty.

Otsailak 15, asteartea.

19:30.

Tosca.

Marxoak 15,

asteartea. 19:30.



SINOPSISIA

**VUELTA A CASA DE MI HIJA**

Zuzendaria: Eric Lavaine. **Aktoreak:** Josiane Balasko, Mathilde Seigner, Jérôme Commandeur, Philippe Lefebvre, Didier Flamand, Jean François Cayrey... **Herrialdea:** Frantzia (2021). **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 88 minutu.

Sormena, baita garai zailean ere

Ama Jacquelinaren etxea hankaz gora dago, eraberritze lanak direla medio. Carole alaba zaharrenaren eta suhiaren etxera bizitzera joan beharrean

aurkitzen da. Bikote-terapiari murgilduta daude biak. Egun batzuk zirenak hilabeteak bihurtzen dira. Tartean ama etxean bezala sentitzen da.

SINOPSISIA

**ILARGIRANTZ (MOON BOUND)**

Zuzendariak: Ali Samadi Ahadi. **Herrialdea:** Alemania (2021). **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Iraupena:** 85 m.

Abenturaz beteriko bidaia

Alemaniako haurrentzako liburu ezagunenetako batean oinarrituta dago. Pete txikia

bidaia batean murgilduko da bere ahizpa txikia Moon Man hatzaparretatik askatzeko.



20 eta 30 eurokoak dira opari-txekeak. AIURRI

Opari-txartelak baliatzeko aukera, beste hilabete batez

Otsailaren 28an amaituko da Urnietako Gabonetako opari-txekeak erabiltzeko aukera

Erredakzioa URNIETA

Udalerrria dinamizatzeko eta Gabonetan Urnietako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko helburuz, On Bizi merkatarien elkarteak diseinatutako eta Urnietako Udalak finantzatutako opari-txeke kanpaina baliatu ahal izango da hurrengo otsailaren 28ra bitarte.

On Bizi Urnietako merkatarien elkartearen eskutik jaio zen egitasmoa, Urnietako bertako merkataritza eta kontsumoa sustatzeko asmoz.

Hala, deiak egiten aritu da On Bizi merkatarien elkartearen pertsona saridunei opari-txekeak egokitu zaizkiela jakinarazteko. Halaber, saridunen zerrenda prestatu dute kanpaina parte hartu zuten herritarrek txekeren bat tokatu zaien baieztatzeko aukera izan dezaten. Urnietako udalaren webgunean dago ikusgai.

Zozketa bidezko sariketa

Kanpaina parte hartu duten establezimenduetako batean edozein erosketa edo kontsumo egin zuten pertsonak txartel bat bete zuten Gabonetan. Opari-txekeak banatzeko zozketa egin zuten joan zen urtarrilaren 8an Lekaio kultur etxean. 20 eta 30 euroko balioa duten opari-txekeak banatu ziren, horiek zein establezimendutan gastatu behar diren zehazturik.

Bada, horretarako azken eguna otsailaren 28 izango da, izan ere, egun horretatik aurrera ez dute baliorik izango.

20 ETA 30 EUROKO BALIOA DUTEN OPARI-TXEKEAK BANATU ZITUZTEN URNIETAN



"Aurreko urteetan bezala, lortu nahiko genuke andoaindar bakoitzeko kilo 1 janari helaraztea Saharako Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduetara. AIURRI

"Elikatu itxaropena", Saharako herritarren aldeko ekimena

Andoingo Udalaren, ikastetxeen, merkatalguneen eta herritarren eskuzabaltasuna eskertu nahi dute

Aiurri komunitatea

Hurria-Sahara

ANDOAIN

Data hauetan, elkarteak herritarrengana jotzen du "Elikatu itxaropena" Sahararen aldeko karabanan parte har dezaten.

2021 urteko osasun-larrialdi egoeran ez zen posible izan ordurarte ohikoa zen elikagai-bilketa egitea eskoletan, denda eta supermerkatuetan. Soilik saharariar borondate sendo eta antolaketa eskertu lortu zuten elikagai murrizketa eta pandemiari aurre egitea, baina hala ere Ilargi Erdi Gorria erakundeak jakinarazi du anemia eta desnutrizio kasuak handitu direla.

Egoera larri honi gehitzen zaio Marokoko Gobernuak 1991 urtetik indarrean zegoen su etena hautsi izana: lurraldea banatzen duen harresi militarren inguruan 2020ko urritik gerra ekin-tza ugari egon dira, baina gai-

nera Marokok hegazkinak eta dronak erabili ditu, soldadu saharai eta zibilen artean biktimak eraginez.

2022 urtean berriz ere "Elikatu itxaropena" Sahararen aldeko karabana antolatu ahal izan da, eta, aurreko urteetan bezala, lortu nahiko genuke andoaindar bakoitzeko kilo bat janari helaraztea Saharako Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduetara. Bestela esanda, dena 15.000 kilo elikagai bildu nahiko genituzke.

Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegazuza, sardinak oliotan eta beste elikagaiak biltzeko Andoingo hainbat merkatalguneetan kutzak jarri dira:

- Eroski (Zumea eta Ondarreta).
- BM (Plazaola kalea).
- Covirán (Karrika).
- Telletxea (Rikardo Arregi),
- Super Amara (Gudarien etorbidea).

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Nemesio Zatarain
Urtarrilaren 23an urteak beteko ditu. Zorionak etxekoan eta biloben partetik: Unax, Aner eta Oinatz.



ANDOAIN
Irune, Aitor, Imanol, Iker eta Maialen ZORIONAK!
Aurtengoa berezia, baina gogoan izan beti bizitzari topa egitea! Maite zaituztegun etxeokak.



ANDOAIN

IKER eta HAITZ

Urtarrilaren 28an Ikerrek 9 urte eta 30ean Haitzek 6. Handiak bezain zoragarriak!!! Ikaragarri maite zaituztegu!!! Amatxo, aitatxo eta Hegoa.

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea Andoain**
- **Telefonoa:** 943 300 732

'Uhinak' Korrikari buruzko dokumentala, AEKren eskutik

Martin Ugalde Kultur Parkean egoitza duen Txakur Gorria sormen kolektiboa arduratu da ekoizpen lanaz

Erredakzioa ANDOAIN

Berrikuntza batekin dator AEK, Korrikari buruzko dokumentala egin baitu: "Uhinak". Martxoaren 31tik apirilaren 10era bitarte Korrika ibiliko da pausoz pausoz, eskuz esku Korri-

karen lekukoa Euskal Herrian barrena. Baina lasterketa erraldoiaz gain, hitzordua amu gisa hartuta, hainbat ekintza antolatuko ditu AEK-k hurrengo hilabeteetarako, dokumentala, artean.

Sinopsia

"Euskal Herriaren zain eta arteria grisetan barrena abiatu gara eta bederatzi ahots topatu ditugu bide bazterretan. Ahots hauei esker, bederatzi paisaia desberdin ezagutu ditugu: bederatzi errealitate linguistiko eta emozional. Hitzekin jolasteko gonbita egin diegu, eta elkarrekin ekiten jarraitzeko irrika jaso dugu bueltan".

Bestalde, jada, sortu dira, Korrika Batzordeak Andoainen zein Urnietan.



Korrika apirilaren 8an iritsiko da eskualdera. AIURRI



Kalez kale ibiliko dira, datorren ostiralean. AIURRI

Santa Yagedaren koplak, Andoaingo herrigunean

Otsailaren 4an Agate deunaren erronda izango da Andoaingo kaleetan barrena, Santa Agedaren bezperan. Beraz, ohiturari jarraituz, Larramendi Bazkunekoek koplak abestuko dituzte. Andoaingo kaleetan barrena ibiliko dira, 18:00etatik aurrera

Aiurri komunitatea

LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

ANDOAIN

Hainbat neurri hartu da. Taldea ez da batera ibiliko kalez kale. Leku jakin batzuetan elkartuko da kantatzera. Derrigorrezkoa izango da musukoarekin abestea eta gutxienez metro eta erdiko tarte mantentzea. Toki jakin hauetan arituko dira kantari:

- Andoaingo Liburutegiaren atzealdeko plazatxoa.
- Basteroko plazatxoa.
- Juanita Alkain plazatxoa.
- Gurutze Santuaren basilizaren aurrean.
- Zumea plaza.
- Goikoplazako Aita Larramendiren irudiaren inguruan.
- Goikoplazako Elizondo Tabernaren aurrean.

Aurten ez da aurretik entsegurik antolatuko. Beraz, erronda Ondarreta kaleko liburutegiaren atzealdeko plazatxoan elkartuko da, arratsaldeko 17:45etan.

Behin Goikoplazan azkeneko kantak eginda, aurtengo segizioa amaitutzat emango da. Covid-19ak sortutako egoera dela eta aurten ez da Ontza elkartean ohiko dugun afaririk antolatuko.

Otsailaren 4ko xehetasunak



Santa Ageda bezperako erronda, otsailaren 4an. AIURRI

Andoainen, kalez kale Liburutegiaren atzealdeko plazatxoan, Basteroko plazatxoan, Juanita Alkain plazatxoan, Santa Krutz elizaren aurrean, Zumea plazan eta Goikoplazan.



2019ko argazkia. AIURRI

Goiburuarrek aurten kale Bigarren urtez jarraian, beraz, Santa Ageda bezperako bisitaldirik gabe geratuko dira auzoko baserriarrak.



CEPA Andoain HHI Helduen hezkuntza

MATRIKULA ZABALIK 2021-22 ikasturteko 2garren lauhilabetea

- DBH-ko **titulua** lortu.
- Hizkuntzak: ingelesa.
- Zure ikasketak **jarraitu**.
- Atzerritarrentzako gaztelera.

Kale Nagusia 4-B. ANDOAIN. 943 304 021



andoaINDARRA
euskaraz